

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2511

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Loiuako «Padre Andrés de Urdaneta» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gutxitzeko eta Hezkuntza Bereziko gela egonkor bat gehitzeko baimena eskatuz, Loiuako «Padre Andrés de Urdaneta» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak hasarazi duen espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 1998ko uztailaren 30eko Agindua, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (abuztuaren 31ko EHAA), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimena ematen zaio Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gutxitzeko eta Hezkuntza Bereziko gela egonkor bat gehitzeko, 2022-2023 ikasturteik aurrera:

Kode zenbakia: 014849 eta 48003692.

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.

Izen espezifikoa: «Padre Andrés de Urdaneta».

Titularra: Padres Agustinos.

Helbidea: Lauroeta, 6.

Udalerrria: Loiu.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena:

- Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gutxitzea.
- Hezkuntza Bereziko gela egonkor bat gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostuko edukierakoa.
- Lehen Hezkuntza: 36 unitate, 900 ikaspostuko edukierakoa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 20 unitate, 600 ikaspostu edukierakoa.

– Batxilergoa: «Zientziak» eta «Giza eta Gizarte Zientziak» modalitateak. 12 unitate, 420 ikaspostu edukierakoa.

– Hezkuntza Berezia: 4 unitate

- Hezkuntza Bereziko 3 gela ireki.
- Hezkuntza Bereziko gela egonkor bat.

2. artikulua.– Indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateko irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez dirulaguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 25a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.